

Diskoak

IKER BARANDIARAN

Mafia estiloen gainera dago, baina gogorra da beti



Omertá.
Mafia.
Estoldetan.
Iraupena: 47'47".
8 euro.

MAFIA FAMILIA HANDIEK osatzen dute eta Euskal Herriko musika taldeen eszenan ere poligamia handia dago, nahiz eta azken hauek botere txikiagoa izan. Mafia Durangaldeko musikari eskarmentudunek osatutako proiektua da, eta horrek bidea ematen die parte diren beste taldeetan lantzen ez dituzten sonoritate edo doinuak interpretatzeko. Sorterriko lehiaketetan harrera beroa izan ostean, estreinako diskoa kaleratu dute familia-mafia berak gida-

tzen duen Estoldetan-en bitartez. Euskaraz abestutako hamahiru piezatan rock gogorra eta indartsua lantzen dute bere ezaguera zabalenean: barruan kokatzen dira hard-rocka eta stonerra, batez ere, eta niri Monster Magnet, The Cult, Potemkin eta talde klasiko-epikoa-goak ekarri dizkidate gogora. Ezin, baina, juramentua tarteko, partaideen izen-abizenak ezagutzera eman.

www.myspace.com/mafiaaguys

Mafia

«Seme-alabei ez genieke musikari izatea gomendatuko»

Mafia da krisi eta balore gabeko garaioan salba gaitzakeen bakarra?

Mafiak ez zaitu salbatuko, mafiak familia bakarrik dauka buruan eta mafiak ez du krisirik jasaten. Baina, Mafia entzuteak krisia jasaten lagunduko digu.

“Berrito jaioko” bazinete, musika egingo zenukete? Konpentsatzen al du?

Askotan oso gazi-gozoa da musikaren mundua, lan asko eta poztasun gutxi ematen duena. Gure seme-alabei ez dut uste bizi-modu hau gomendatuko geniekeenik, askoz hobe mafioso izatea.

“Bat bateko ideiek ez dute tokirik nire mundu mugatu honetan”. Esperientzia, abantaila baina, oztoppa da?

Esperientziak beti aberasten gaitu, baina esperientzia dugunoi batzuetan ilusioa falta izaten zaigu. Musikaren munduan ere, askotan ezjakintasunak

originaltasunera eramán zaitzake eta esperientziak errepikapenera.

Durangaldeko zer desertuk inspiratzen zaituzte? Soinuan eta hitzetan horren erreferentzia garbiak ageri dira...

Goienkaletik Plateruenera dagoen bidea da gure desertua. Neguko larunbat hotzetan, gaueko ordu txikietan gure hankak Plateruen plaza-rako bidea hartzen dutenean. Tragorik gabeko minutu horietan, gure

barneko basamortuetan bakardadean aurkitzen garenean, orduan etortzen zaizkigu inspiraziorik sakonenak.

Zeren bila jo zenuten Nick Litwinengana?

Seiurteren azken diskoa berak masterizatu zuen eta emaitzarekin oso pozik geratu ginen. Gainera masterizazioa ezjakintasunez inguraturiko prozesu gatazkatsua da. Beraz, garantiazko norbaiten laguntza nahi genuen.

Estoldetan-ekin lan egitea etxean bezala aritzea da?

Musika dagoen egoera kontuan izanda, proiektuak aurrera eramateko era bat besterik ez da autoprodukzioa. Estoldetan diskoetxea Elortzatarrok sortu genuen gure familia eta lagunon artean sortzen ziren proiektuak aurrera ateratzen laguntzeko asmoarekin. Badakizu, Mafiak beti familian egingen du lan. ■

